

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2013ko maiatza • 279. alea



EUSKAL JAIAK
dantzaren bizipoza

Euskal



EPOCA-GORO

San Juan, 5. Elbar - 943 700 216 - www.epocasukaldeak.com
ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA



Men egin?



Iñaki Amuategi Oskar Elizburu

E up, Oskar!

Udaberrixa aurrera eta zaharrak berri, neguan arrastua ezin gaisetarik kenduta ondiok. Egualdixa bizi dogun sasoi ilunakin bat eginda daguala jirudik:

Etxe kaleratziak, despidoak, dispersiñua, tratu txarrak, torturak, langabezia, atxiloketak... ez jok atertzen orraitio!

Gaiñera dana legala ei dok hi, langilliak kaleratzia doakua eta legala dok, etxe kaleratziak eguneroko ogixa, militantzia politikuagaitik Ertzaintzak euskal gaztiak atxilotzia derrigorrezko egin biharrekua ei dok eta dispersiñua, legala ez, baina igual dok; batzuek 31 eskutik beti!

**“Alkartasunez,
adorez, maitasunez eta
herritarron indarrez
gauza asko lortu leikezik”**

Eta desobedientzian bidetik jotzen dabeneri egurra! Donostiako bulebarrian eta Ondarruko zubixan gertautakua lekuko. Alde bateko pausuen aurrian, ostrukan politikia egin eta ezer gertatu izan ez balitzok moduan jokatzeko jharduek Estaduak eta beren akolituok. Eta herritarrori zer geratzen jakuk?

80. hamarkadan soldautza egitiaren kontra intsumisiño mugimenduak lortu eban arrakasta eta oihartzuna etorri jatazik gogorra Oskar. Gaurkora etorrita Donostiako eta Ondarruko adibidiek argi pixkat ematen joskuek; alkartasunez, adorez, maitasunez eta herritarron indarrez gauza asko lortu leikezik.

Errestuan laguntzeko asmuakin, galdera bikin agurtuko haut: Legiak betetzien etxe barik edota kartzelan amaittu bihar bajua, zer egin bihar juagu, legedi arrotzok betetzen jarraitu? Men egiten jarraitu bihar ete dogu?

“Legia lege” esamoldia aspaldikua dok, Txisto, eta horri men egitiak bihurtu jok gizartiaren zati haundi-zabal bat menpeko. Boterian daganak egiten jok, ia beti, legiaren alde. Are gehixago, boteriak, gehixengua daukanian, inposatu egiten jok bere nahixa; zer dala-eta jarriko dok, ba, bestiekin adosten inposatzeko aukeria daukanian? Legiek, baina, ez jauke beti zilegitasunik; are gehixago, askotan ikusi izan juagu, justuak barik, aldebatekuak eta diskriminatzaillak dirala.

Argi ikusi juagu hori Catalanekin eztok? Ala ez jaok argi epailiek hartutako erabaki horrek guztixak gehixenguen kontrakuak dirala?

Inposatzeko aukeria ez daganian jatozik kontuak; orduan bai, orduan adosteko biharra etortzen dok. Edota, kasu askotan, gehixenguen kontra sentitzian, benetako presiñua sentitzian... Adibiderik argixena izan leikek hik heuk aittatutako intsumisiñuarena. Baiña norabidiaz galdetu dostak, txo, eta argi jaukat desobedientzia mota askoren alde egittia dala bidia (gainera, horrelako

**“Argi jaukat
desobedientzia egoki egitteko
prestakuntza bihar dogula”**

ekintza moduen eta jardueren aurka sutsu ibili diran askok be aldarrikatzen hasi dittuk, orain, ez obeditzia; Atez atekuaren aurka, adibidez. Batzuen ustian, zeinen kontra egiten dan eta horren-gandik jaso leiken zigorraren tamaiñuaren arabera ete dok ba onargari desobedientzia?)

Baiña argi jaukat desobedientzia egoki egitteko prestakuntza bihar dogula: irabazteko izan bihar dok, eraitteko eta boteria deseroso sentiarazteko. Ekaiñaren 8xan eta 9xan jardunaldixak egingo dittuk Gasteizen, “Ez obeditzearan artea” izenpian. Ereduak azaldu, legediaren zirrikituak erakutsi, bildurra baztertzeko tallerrak... Pista asko emongo juek, hortaz.

Ba, orainguan, men egin deialdi horri eta bertara juatia proposatuko neukek; mereziko dabelakuan najaok!

Gutunak

Elkargune
Herri Jantokia

Elkartasunaren bueltan

Ostiralero jantoki herrikoia badoa itxura hartzen, soraluzetarren elkartasunari esker elikagai ugari jasotzen ari baikara. Hala ere, partehartzea espero baino txikiagoa da, baina denborarekin gehiago elkartuko gabela konbentzituak gaude. Bertan dirurik ez da erabiltzen: ahal duenak bazkariaren truke elikagaiak ekar-tzen ditu, ezin duenak doan bazkaltzen du, eta lana denon artean banatzen da. Ekimenaren arrazoi nagusia, bizitza duin bat izateko pertsonen beharrak asetzea: behar ekonomikoak (janaria, arropa, etxea...) eta sozialak (adiskidetzak, taldea, maitasuna...).

Elkargunetik momentuz ezingo dira behar guztiak asetu, baina janariaren beharra asetzeaz gain, gure behar sozialen parte bat asetzeko gunea ere bada, elkarlaguntzeko erreminta baita. Jendarteak indibidualista bihurtzen gaitu eta horrekin apurtzeko bidea elkar ezagutza da, elkartasun loturak sortzea, denok talde baten gaudela sentitzea, injustizia sozialari denon artean aurre egitea, beste Soraluze bat eraikiz. Arazoa kolektiboa kolektibizatu, lotsak alde batera utziz, ditugun arazoak sozializatuz denon artean irtenbideak topatu, bakardadea alde batera utziz, laguntasun eta elkartasun sentimenduak eraikiz. Behar ekonomikoak izan ala ez, aurreiritziak alde batera utzi eta etorri!

Soraluzeko
EAJ/PNV
udal taldea

Langabeziari adarretatik

Ikaragarriak! Soraluzeri dagokionean Lanbideko plazaratutako datuak. Guztira 372 langabetu ditugu eta langabezi tasak %20,6 suposatzen du. Gipuzkoako langabezi tasa % 13,27koa da eta Euskadikoa %16,2koa. Egoera larri honen aurrean Bilduko udal gobernuak zer planteatzen du? Egia da, kurtsoren bat ematen ari dela, baina pentsatzen dugu ez dela nahikoa. Gure taldeak, egoeraren jabe izanda, maiatzeko plenoan, brigadarako kontratazio berriak egitea proposatu zuen. Erantzuna ezezkoa izan zen. "Ezin daiteke kontratazio berriak burutu, Lanbidek ez baititu finantziatzen eta Raxoiren dekretuak ez ditu baimentzen." Harritzen gaituen erantzuna, jakinda Bilduk, udal baliabideekin (22.000€) 12 hilabetetarako aholkulari bat kontratatu duela, guztia, alkatetzak dekretu bidez. 2007. urtetik (128 langabetu) 2013. apirilera (372 langabetu) udalerrian %200an igo da langabetu kopurua. Gustatuko litzaiguke jakitea udal sindikatuek egiten duten balorazioa datu hauekiko. Gure taldea laguntzeko prest dago, ekarpenak eginez, udal gobernuak dakien bezala, baina pentsatzen dugu erantzunkizuna gobernuarena dela. Tamalez, ez dugu ez ekimenik ezta ideia garbirik ikusten. Legealdi erdia burututa, pentsatzen dugu ordua dela langabeziari adarretatik heltzeko!

Eloi Uriarte
Díaz de Gereñu

Biarritz, ekainak 15

Urteetako gatazka politikoaren ondorioz, gure herrietatik ihes egin behar izan genuen Euskal Herriko gizon eta emakumeek osatzen dugu Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboa.

Denetarik ezagutu dugu: gerra zikina, estradizioa, deportazioa, konfinamendua, euro-agindua gaur egunean oraindik; kolektiboan errealtate oso ezberdinak ditugu: babesa behar dutenak, gaixo daudenak eta urrun ditugunak lehenik gogoan. Munduan zehar barreiatu eta egoera ezberdinetan bizi garen Kolektiboko kideok konpromiso irmoa erakutsi dugu Euskal Herrian hasitako aro berriarekin eta bideratu beharreko gatazkaren konponbidearekin.

Bi dira erronkak: nazio aitortza eta erabakitze eskubidea ekarriko dituen prozesu politikoa, eta gatazkaren ondorio gordinenak behin betiko gainditzea.

Herria dugu amas. Sorterria urrun badugu ere herria da gure eguneroko borrokaren hutsa, guran bizi dena libre, eta libre biziko duguna. Ekainaren 15ean ekitaldi politikoa burutuko dugu Biarritzeko Irati aretoan, zeren eta guztiaren gainetik, gainontzeko Euskal Herriarekin batera bizitzera, libre izatera, irabaztera goaz. Zure presentzia eskertuko dugu. Iheslari eta Preso Politikokoak etxera.

Bittartetik



Ondarruko herri-lesioa

Hasteko, aittatu nahiko neuke Juan zan astian Ondarruko Aske Guneko "Komunikazioa Taldeak" egindako lana. Bertara gerturatzerik ez zeukenak une oro gertatzen ari zana informatuta egotia lortu eben. Hau ez da gutxi, batetik sei egunetan zihar izandako mugimendu guztia kontuan hartuta, eta bestetik komunikabide garrantzitsuenak egindako blokeo potentian ondorixoz. Txaluak beraz beraientzat!

Bertan egoteko aukeria izan genduanok bazekigun poliziak etorritakuan zer egin bihar genduan. Aurreko egunian eman zoskuen abixua hurrengo egunian bertan goizaldera etorriko ziralaa ia-ia seguru, eta bostetarako danok esna genden, momentuan zain. Ertzainak ailegatzen ziralaa ikustian zubira igotzen hasi zan jendia Urtza erdixan hartuta, eta bertan kabitzen ez ginanok zubixan sarrerak blokeatu genduzen. Lurrian jarri eta besuak besuekin kateatu genduzen. Ikustekua izan zan jendiak zela jarraitzen eban lurrian eskuak katiauta euri txaparradia hasi zanian be (eta ez zan nolana hikia izan!).

Ondoren bai bizi izan ziralaa tentsio momentuak. Gu zubixan beste al-dian genden, baina argi eta garbi ikusten genduan zela altxatzen zittuen biolentzia handiz lurrian jarritta zeguazanak.

Hemendik aurrerakuz enterauko zinatzen. Nik nahikua izan neban ordu erdi batian ikusitakua egun hartan erabiliko zan bortizkerixa maila zein izango zan ikusi ahal izateko. Argi eta garbi geratu zan Urtza Alkorta babestu eta bere atxiloketa oztapatzia ETA babestetik oso urrun daguala. Giza eskubidien aldarrikapen bat izan zan, eta hau ulertu nahi dabenak ulertuko dau.

“Euskal Herrian dauden muga musikalak gainditu nahi ditugu”

The Crazy Wheels Band



Juanek, Josuk eta Inak ilusio bereziarekin heldu diote proiektu berriari.

Ina eta Josu Arriolak, Juan Fernandezek eta bi bizkaitarrek (Xabi Mendez eta Mikel Sainz de Rosas) osatzen dute The Crazy Wheels Band. Erritmoa eta bizitasuna goxogoxo uztartzen dakien boskote gazte honen 50. hamarkadako musika amerikarra damara zainetan eta Folka, Soula, Bluesa edota Rocka lantzeko gogoari helduta 2011. urtean sortu zuten taldea. Orain, proiektua indartu asmoz, crowdfunding kanpaina jarri dute martxan. Ezagutu ditzagun!

Aurkeztu zuen burua herritarrei. Zela sortu zenuten The Crazy Wheels Band?
Inak (ahotsa, armonika, gitarra) eta Xabik (gitarra, mandolina, dobroa eta ahotsa) sortu genuen taldea 2011ko abenduan. Klasetik kanpoko orduetan gure abileziak praktikan jarri eta modu akustikoan maketa bat grabatu genuen. Gerora batu ziren Juan (bateria eta perkusioa), Mikel (Hammond B3, pianoa, organoa eta ahotsa), eta Josu (ahotsa eta baxua). Orduz geroztik bostok dihardugu taula-gaineko zuzenekoetan.

“Ondarrun, Eibarko Ez Dok tabernan, Urretxun eta Zornotzan eskainiko ditugu datozen emanaldiak”

Zer kontaktzen duzue zuen kantuetan?

Country doinuak eta Blues sustraiak dituen rocka eskaintzen dugu. 50. hamarkadako musika amerikarra da gure influentzia nagusia, The Band, Eagles, Blacberry Smoke... eta Blues doinuen goxotasunari jarraiki, maitasunari eskainitako abesti asko konposatu genituen hasieran. Gerora, gitarra elektrikoarekin abesti rockero indartsuagoak egin ditugu eta Creedence taldearen bertioak edota Marvyn Gayenak ere entzun daitezke gure emanaldietan.

“Banden Lehia lehiaketak taldea ezagutzera ematen lagundu digu”

Musikalki aukera ausarta dela esan daiteke?

Countrya edo Bluesa euskaraz kantatzearekin Euskal Herrian dauden muga musikalak gainditu nahi ditugu. Jende gazteari Bluesarekin Punk, Oi, Reggae edo Ska estiloekin beste disfrutatu dezaketela demostratu nahi diegu.

Zuzenekoetan nolako erantzuna jasotzen duzue?

Entzuleek gero eta gehiago gozaten dute gure emanaldietan eta interneti esker gure

musika zabaltzeko aukera izan dugu. Banden Lehia lehiaketak, adibidez, jarraitzaile asko izan zituen eta finalera heltzeak taldea ezagutzera ematen lagundu digu.

Orain Crowdfunding kanpaina jarri duzue martxan. Zertarako?

Asmoa da material profesionalarekin lau bideo eta diskoa grabatzeko beste diru lortzea, 1.000 euro inguru, eta bide batez herritarrek gure proiektuaren parte bihurtzea. 10 euro sartzen dituenak CDA

“Crowdfunding-arekin lau bideo profesional eta diskoa grabatzeko beste diru lortzea da asmoa, 1.000 euro inguru”

jasoko du, 200 euroekin kontzertu bat lotu dezake... Astebetean 500 euro inguru jaso ditugu eta diru sarrerak interneten, <http://goteo.org/project/the-crazy-wheels-band-en-las-estereosessions> helbidean egin daitezke.

Epe laburrean, zein asmo dituzue?

Iraila partean lan berria argitaratuko dugu eta bitartean, zuzeneko emanaldietan zentratuko gara. Ondarrun, Eibarko Ez Dok tabernan, Urretxun eta Zornotzan eskainiko ditugu datozen emanaldiak.

HNOS. BENITO ANAIK



Etxeke eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**



ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Grebak jarraipen handia herrian

Azoko grebak jarraipen handia izan zuten herrian. Merkataritzan eta hezkuntzan ia erabatekoa izan zen geldialdia eta lantegirik gehienek ere ateak itxi zituzten. Goizean, LABek deituta manifestazioa egin zuten berrogeiren bat herritarrek "eskubide sozial eta laboral

duhinak" lemapean. Etorkezunean *gutun soziala* helburu hartuta lanean jarraitzeko asmoa adierazi zuten greba antolatzen jardun duten eragileek.

Nagusien egoitzako akordioa

Uztaileko lan-erreforma ez ezartzea adostu dute Mesedeetako Amaren egoitzako langileek, eta berau kudeatzen duen fundazioak publikoak. Herraldeko hitzarmena lortu ezean Aldundiak proposatutako lan-hobekuntzak ezarriko dituztela jakinarazi du fundazioa zuzentzen duen alkateak. Ezoz Maiztegi egoitzako LABko ordezkariaren esanetan langileak lasaiago daude orain, "Estatuko hitzarmenak soldatetan 400 euroko jaitsiera eta urteko lanaldia 200 orduz luzatzea jasotzen du. Neurri honek saihes-tea lortu dugu, eta herraldeko hitzarmena lortzea da orain gure helburua".



Manifestazioaren ostean Plaza Barrixan.

Iñurrieta IEZIEko lehendakari

Apirilaren 20az geroztik, Iñaki Iñurrieta soraluzetarra IEZIEko -Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarte-ko lehendakaria da. Berriari eskainitako elkarrizketan adierazi du "ilusioz" heldu diola ardura berriari.



Etorकिनendako gidaliburua

Etorकिनendako gidaliburua argitaratu du udaleko gizarte zerbitzuak. Bertan herria eta inguruak hobeto ezagutzeko informazio praktikoa jasotzen da: errolda prozesua, osasun zerbitzuak, hezkuntza, garraioa, etxebizitza, aisialdia, emakumeendako harreta zerbitzuak... Euskaraz, gaztelerez eta arabieraz dago. Maiatzaren 23an egin zen aurkezpena antzokian eta hogeitamarren bat herritar hurreratu ziren.

Bihar eguerdian Mundumob, "jaso dugun mundua eman"



Bihar eguerdiko 12:30ean grabatuko dute Mundumob ekimena Zubi Nagusian. Mundumob Gipuzkoako Zero Zabor mugimenduak antolatutako ekimena da. "Jaso dugun mundua eman" da ekimenaren mezu nagusia, eta bere helburua herritarrek berziklatzearen beharraz kontzientziaztea da. Soraluzeko Zero Zabor taldeak bultzatu du Mundumob ekimena herrian, eta azkenengo asteetan koreografia ikasteko hainbat saio antolatu dituzte. Bideo laburrak ere grabatu dituzte: futbolariekin, egoitzako aitita-amamekin, langileekin... Ekainaren 8an Donostian egingo da Gipuzkoa mailako ekimena.



Zakurren erasoak San Andresen

San Andres auzoko hainbat baserri-tarrek salatu dutenez, azken asteotan, hainbat animalia zauritu dituzte zakurrek, gauzez egindako erasoetan. Iriarte-gain baserrian moxala hil zuten eta Barrenetxe baserrian bildotsak hiltzorian laga zituzten.

MABE
ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabel kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

Plazara eskubideak aldarrikatzera
Maiatzaren 18an, Herrirak deituta 237 ekitaldi egin ziren Euskal Herri osoan zehar "euskal preso politikoen" eskubideak aldarrikatzeko. Sorluzen Plaza Zaharrean egin zen elkarretaratzea eta 80 lagun inguru batu ziren. Herrirak jakinarazi duenez, ekainaren 14an, arratsaldeko 19:00etan Herri-Bilgunearen bilera egingo dute antzokian. Besteak beste, udara bitarteko ekimen berriak adostuko dituzte bertan.



Autobusa errefuxiatuen ekitaldirako
Sorluzeko Sortuk autobusa antolatu du ekainaren 15ean, zapatua, Miarrizten egingo duten ekitaldirako. "Herria dugu arnas" lemapean, "gatazka politikoaren eraginez ihes eginda dauden euskal herritarrek egindako hausnarketaren berri emango dute". Egun guztiko irteera izango da eta nahi duenak bazkaltzeko tokia ere izango du. Izena Arrano tabernan eman behar da.

Bono-laguntzak familiendako
Egoera larrian dauden familiendako 50 euroko bono-laguntzak banatuko ditu udalak ekainean zehar. Bizikale merkatarien elkartearekin elkarlanean bultzatutako ekimena da, eta helburu nagusia "krisiaren eraginez egoera larrian dauden familiei laguntzea da". Eskariak gizar-te zerbitzuen bulegoan egin beharko dira ekainaren 1etik 30era bitartean. Etxeko diru-sarrerak 1.200 euro baino txikiagoak izatea da bono-laguntza jasotzeko baldintza nagusia.

Ingurumenaz jardun dute Alkarrekin prozesuan

Ingurumena izan da maiatzean zehar Alkarrekin Sorluzeko Eginez prozesuaren barruan landu den arloa. Maiatzaren 8an, lehenengo bileran, diagnostikoa aztertu eta bi ildo nagusi lehenetsi zituzten: natur ondarea eta kontsumo arduratsua. Maiatzaren 22koan berriz, bi ildo nagusi horietan oinarrituta, herrian ingurumena zaintzeko bultzatu ahalko liratekeen egitasmo zehatzen gainean jardun zuten; elikadura burujabetza sustatzea, ibaiarekin kontaktua berreskuratzea, birziklatzeko tasa gehitzea... aipatu zituzten. Guztira berrogeiren bat herritarrek hartu dute parte maiatzeko bileretan. Udal gobernuaren esanetan "Sorluzeko plan estrategikoa herritarren artean jasotako proposamenetan oinarrituta eraiki nahi dugu. Urte amaierarako, herritarren ekarpenekin osatuko dugun txosten osoa izango da plan estrategikoa zehazteko udal ordezkariak erabiliko dutena".

Ekainean ongizateaz


Ekainean antolatuko diren bileretan ongizateaz jardungo dute. Lehenengo bileran -ekainak 5- diagnostikoa aztertu eta bi ildo nagusiak lehenetsiko dituzte, eta bigarren bileran -ekainak 20- , ongizateko proiektu zehatzak.



Hezkuntza esparruan eragin nahi du aurten Komite Arroxak

Ekainaren 28a gay, lesbiana, transexual eta transgenero eskubideen alde egiteko eguna da, eta Komite Arroxak aurten, bisibilizazioan ez ezik, herrian eta bereziki hezkuntza esparruan eragin nahi du: "hezkuntza komunitatean ezinbestekoa da gai hauen inguruko lanketa iraunkor eta sakona egitea, hezkuntza guneetan ere homofobia, lesbofobia eta transfobia egon badaudelako, eta horrek ekiditea hezkuntza komunitate osoaren ardurua da". Horren haritik, askatasuna lantzeko tailerra egingo dute Gaztelekuan eta urtea bukatu bitartean, Zinema Arroxa zinekluba antola-

tzen jarraituko dute. Liburu aurkezpenak eta elkarretaratzeak ere antolatu dituzte ekainerako.

Egitarau osoa: 



Jon Sarasua

“Garapen eredu hau gezurra da, eta amaitu egingo da”

Jon Sarasua Maritxalar (Aretxabaleta, 1966). Kazetaritza eta soziologia ikasi zituen Bilbon. Soziologoa eta bertsolari ezaguna. Gaur egun plazatik erretiraturik, Mondragon Unibertsitatean dabil irakasle, Huhezi fakultatean.

Jon Sarasuak abisatu du Barrurago ote daude krisiak? izeneko hitzaldia hasi orduko, “bertsolarien ezaugarri txar bat gelditu zait: probokatzailereana”. Jakitun da esaten dituen gauza asko deserosoak gerta daitezkeela zenbaitendako eta etsai asko sortuko dizkiola. Hala ere, konbentzituta dago horixe dela jendea sistemarekiko alternatibak pentsatzen jartzera bultzatzeko bidea. Jarraian duzue Sarasuak botatako ideia zamaldaren lagin txiki bat, elkarrizketa formatuan.

Zer dago krisi honen atzean?

Krisi hau turbulentzia finantziero batek eragin du, baina horren atzean askoz gehiago dago; krisi demografikoa, ekonomikoa, ekologikoa... dago. Krisi hau benetako krisiaren azala baino ez da. Baliteke egoera honi behin-behinean buelta ematea, eta beste oparotasun garai laburren bat bizitzea, baina handiena etortzeko dago, eta etorriko da. Gutako askok ezagutuko dugu, eta gure seme-alabek ere bai.

“Handiena etortzeko dago eta ez gara ari prestatzen”

Horrela esanda, diskurtso alarmista xamarra dirudi.

Egoera halakoxea da, eta gai horren inguruan ikertzen diharduten beste batzuek nik baino iragarpen gogorragoak egiten dituzte. Azken berrogeitamar urteetan gizakiaren existentzia guztian baino baliabide gehiago xahutu dugu, eta hazkunde erritmo hori jasanezina da. Petroleoaren “pick oil” delakoa gainditu dugula diote, eta badirudi bizi dugun egoera hori gainbeheraren hasierako sintoma dela.



Norena da egoera honetara heldu izanaren ardura?

Krisia eragin izanaren ardura kapitalismoari egozten diogu, eta egia da, baina ezin dezakegu kapitalismoaz hirugarren pertsona hitz egin. Kapitalismoa gutako bakoitzaren barruan dago, gure eguneroko jardunean txertatua dagoen pentsatzeko modua da. Gezur asko esaten dizkiogu geure buruari, eta gauza asko berpentsatu beharrean gara. XX. mendeko ideia dogmatiko asko erori dira eta beste asko eroriko dira. Desikastera deituak gaude. Gutxiagorekin bizitzen ikasi beharko dugu, eta hori ez da gauza erraza.

Ari al gara horretan?

Ez. Ez gara horretan ari. Krisi egoera honen aurrean sindikatuek eta ezkerrek egiten dituzten planteamenduak ez doaz norabide horretan. Planteamendua hurrengoa da: "guri mantendu lehengo! Hazkundera bultzatu behar da, lana eman behar diguzue". Ez dira planteatzen ari "daukagun lana banatu behar dugu, prestatu gaitzen gutxiagorekin bizi izaten ikasteko", ez, kontrakoa. Zer eskatzen du biharko grebak? Hazkundera. Hori tradizionalki eskuinak bultzatu du.

Gogor kritikatzan duzu ezkerria.

Ezkerrek sistema aldatzea proposatzen du, baina benetan ez da ari sistema aldatzen. Hemen ez zaio planteatzen alternatibarik merkatu-sistema horri. Ekuinak, estatuaren egitura pixkat gehiago mehetu nahi du, merkatua loditzeko; ezkerrek, kontrakoa. Han eta hemen gertatzen ari diren esperientziek erakusten dute ezkerria eta eskuma ez direla benetako lehian ari. Sistemaren baitakoak dira bien proposamenak. Ikuspegia mundu mailan kokatzen badugu, ikusiko dugu Espai-

"Gutxiagorekin bizitzen ikasi beharko dugu"

"Transition mugimenduak deshazkundera proposatzen du"

nia, Frantzia, Europa... herrialderik txiroenak esplotatzen dituen merkatu-sistema horren onuradunak direla, eta Euskal Herria ere bai. Jendea gosez hiltzen ari da munduan, bada-kigu garapen-sistema hori gezurra dela, eta amildegia hor dagoela, baina ez dugu sistema aldatzen. "Eskumak ez du hazkundera gutxitu nahi, ba ezkerrek ere ez". Ez daukat zalantzarik borondate onez diharduela askok, baina ez da ari sistema aldatzen.

Zein da, zure ustez, hartu beharreko norabidea?

Ingalaterrako *Transition* mugimenduak planteatzen duena oso interesgarria da: deshazkundera. Badakigu gutxiagorekin bizi beharko dugula, beraz, presta gaitzen horretarako. Ez dute kontradiskurtsoren dinamikan sinesten, praktika positiboan zentratzen dira eta benetako aldaketa koherentzia pertsonaletik datorrela aldarrikatzen dute. Autoeraketa bultzatzen dute: "Ez utzi boterea kapitalistei, egin ezazu zuk zeuk". Mundu guztian hedatzen ari den mugimendua da. Hemen ere, ertzetan jendea hasita dago horrekin konturatzen. Oso bazterreko mugimenduak dira oraindik, baina poliki-poliki indarra hartzen joango dira.

Azken mezua.

Krisia aldatzeko aukera paregabea ere bada.



Sarasua, eguaztenean eman zuen hitzaldian.

Ahuleziak Eta Indarguneak Euskal Herrian

DESARROLLISMOA

Desarrollismoaren balorea barruraino sartua daukagu. Egia da agintariak indar handiz bultzatu dutela, baina herriak ere bultzatzen du. Zein dabil, gaur, hemen, hoguei urte dituen bizikleta zaharrek? Frantzian ikusten dira, hemen ez. Hemen, hoguei urteko bizikletarekin bazabiltza, laster esango dizute: "ze, habil, motell!". Alde horretatik, erresilientzia gaitasun gutxi daukagu hemen.

AUTOERAKETARAKO SENA

Baina helduleku onak ere baditugu gure herrian: "Gizarte zibila autoeratzeko sena oso handia da hemen: ikastolak, kooperatibak, euskararen berreskurapenean izandako esperientzia... mundu mailan erreferentzialak dira. Kanpoko jendea aho zabalik gelditzen da gauza askorekin. Hemen oraindik gelditzen da etorkizuna, amesteko gaitasuna".

IPARRAK Sarasuak proposatzen dituenak aurrera egiteko

AUTOERAKETA

Geuk sortu, geuk egin, inoren zain egon barik. Hartu boterea geure esku.

ELKARTASUNA

Egin elkartasun aktiboa -hemen bertan eta urrutilari dagoenarekiko.

NORTASUNA

Geroratu gure hizkuntza eta izateko modua.

IRAUNKORTASUNA

Asmatu iraungo duen gizartea.

Alkarrekin Soraluze Eginez prozesua jarri du martxan maiatzean udalak, alderdi politiko guztien oniritziarekin. Herritarren parte hartzearekin udalak datozen urteetan jarraitu behar duen norabidea zehaztea da hellburua.

Zer irizten diozu Alkarrekin prozesuari?



Aitor Amor

Ez dut izan horren berririk. Garrantzitsua da nondik gatozen eta nora goazen jakitea. Ni pixkat etsita nago. Amets asko egiten dira baina gero horiek praktikara eraman behar dira eta hori izaten da zailena.



Toñi Gomez

Ni ez naiz enteratu. Ez naiz kalean asko ibiltzen eta.. Proposamena oso ondo iruditzen zait. Herriaren alde egiteko bada berez da ona eta onurak bakarrik espero litezke.



Jokin Martinez

Herriko kontuek denoi eragiten digute, eta ahal den heinean parte hartu behar genuke. Nik parte hartzen dihardut. Iruditzen zait orain erronka dela hausnarketa hauek herrian zabaltzea eta jendeak parte hartu ahal izatea.



Veronica Galarraga

Proiektu interesgarria iruditzen zait. Herrian dauden ideia eta adin desberdinetako pertsonen proposamenak jasoko dira eta ea lan polit bat egiten dugun, herria hobetzeko. Nik parte hartzen dihardut.

Javier Alonso Zelaeta
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
 jotako tornilluak

Errekalde 21 T. 943 75 00 06
 20590 SORALUZE T. 943 75 16 00
 F. 943 75 24 61

Desing KM

Diseinua eta Formera

Poligono Amillaga, nº 5
 Tlf.: 943 76 99 85
 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
 Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak

CRISTIAN CORTES
 PEDRO MOREIRA

soralur

Igeltseritza eta pintura lanak

Tel. 616864464 / 667362957
 soralurc.b@hotmail.com

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
 Jabe Elkarreak
 Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
 Tifonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
 GIPUZKOA

MENDIZABAL okindegia

Kalebarren 10
 T. 943 75 20 91

Balategieta 6
 T. 943 75 13 99

SORALUZE

Kirol emaitzak

PELOTA

Debarroko Txapelketa, finala

Santamaria – Kortabarría	22
Arizti – Diez	17
Andreu – Irureta	22
Zuazua – Bolinaga	7

FUTBOLA

Gipuzkoako Kopan

Beti Onak – Sora (Erreg.)	3-5
Sailk. Orok. 2.na, 1. etik 6 puntura	
Sora (Inf. Mut.) - San Patricio	4-1
1. sailkatu dira	
Kopako txapelketan	
Sora (Erreg. Pref.) – Getariako	3-2
Sailkapenean 4.na, 1.etik 6 puntura	
Sora (Jub.) – Eibartarrak	1-2
Sailkapenean 6.na, 1.etik 10 puntura	
Ikasberri – Sora (Kad. Mut.)	1-1
Sailkapenean 3.na, 1.etik 26 puntura	
Aloña Mendi – Sora (Kad. Nesk.)	3-0
Sailkapenean 7.na, 1.etik 25 puntura	
Amaiak Bat – Sora (Inf. Nesk.)	0-0
Sailkapenean 2.na, 1.etik 2 puntura	

Agenda

FUTBOLA

Ekainak 15, Soraluze
Futbol Taldearen afaria
20:00etan, Txoko kafetegian
Ant: Zuzendaritza

GIMNASIA ERITMIKOA

Ekainak 8, erakustaldia:
11:30ean, kiroldegian
Ant: Udaleko Kirol Batzordea

MENDI IRTEERAK

Ekainak 9, 9:00etan Estaziñotik:
Hendaia – Donibane Lohitzune

Sorako Infantilek Kopa ekarri dute herrira

Iturria: Celso Dominguez

Finalerdietako joanekoan 4 eta 2 galdu arren, itzuliko partidatan 4 eta 2 gailendu zitzaio talde zestoarrari eta penaltiei esker sailkatu zen talde plaentxiarra finalerako. Zapatuan jokatu zuen Idiazabalen Kopako finala San Patricio donostiarren kontra, eta 4 eta 1 irabazi ostean, Kopako txapeldun izan da Sorako Mutilen Infantil taldea. Ibai Tajuelok sartu zituen finaleko lau golak eta pozaren pozez, herrira etorri eta udaletxeko balkoira igota ospatu zuten lortutako garaipena.



Infantilak garaipenez harro, San Patriciokoekin ateratako argazkian

Debarroko lehiatik bina txapel herrira

Iturria: Aitor Atxotegi

Aurreko zapatuan jokatu zuten herriko pilotariak Debarroko Pelota Txapelketako Finala Elgoibarren eta baita ondo jokatu ere. Santamaria eta Kortabarrak Aristi eta Diez bikote bergararren kontra neurtu zituzten indarrak eta 22 eta 17 irabazita, Jubenil mailan Debarroko Txapeldunak izan dira. Nagusietan berriz, Andreuk eta Iruretak hasiera hasieratik kantxan nagusi zirela erakutsi zuten eta 22 eta 7ko aldeaz finala aise irabazi zioten Zuazua eta Bolinaga bikote arrasatearrari. Santamaria eta Andreu izendatu dituzte, gainera, Finaleko pelotaririk onenak.



Gimnasia erakustaldia kiroldegian

Ekainaren 8an herriko gimnastek eta Eibar, Markina, Mutriku eta Urretxutik etorriko diren kirolariak gimnasia eritmikoko erakustaldia egingo dute Arane

kiroldegian, goizeko 11:30ean. Adinaren arabera antolatu dute erakustaldia: Lehen Hezkuntzakoak hasiko dira, lehenengo mailatik hasi eta DBHra artekoak.



Umeen eguna eta erromeria aurtengo Euskal Jaian

Debagoieneko dantzariak Sorluzen elkartuko dira domekan, XLIII. Haurren Euskal Jaia ospatzeko. Guztira 200



bat ume espero dituzte eta egun osoan zehar herriko txistularien kalejira, dantza, taldeentzat hamarretakoa, kalejira eta goizeko eta arratsaldeko dantzarien alardea ez dira faltako. Eguna biribiltze aldeira buruhandiak ibiliko dira kalerik kale.

Erromeria sagardoz bustita

Ekainaren 8an ospatuko da seigarren edizioa. Goizerako Urratsekoen dantza saioa eta Aiko erromeria taldearen emanaldia antolatu dituzte eta arratsaldean Xero Xietek dantzan jarriko du Ezoziko plaza, sagardo dastaketarekin batera; herriko sagardoa dastagai jarriko dute gainera.

Ezozki auzoko jaia, hilaren 9an

Domekarako auzotarrei eskainitako jaia prestatu du Ezoziko Jai Batzordeak. Salda eta txorixoa banatuta, meza izango dute bertaraten direnek eta eguerdirako herri kirol erakustaldia antolatu dute. Bazkalostean zezentxo eta poniak izango dira, umeen gozagarri.

Argizaiola saria irabazi du Carlos De Cosek



Euskal Herriko argazkilaritzan esleitzen diren "sarien saria", 2013ko Argizaiola saria jaso du Carlos de Cosek. Sariketa honetan soilik Euskal Herriko beste zortzi txapelketatan sariren bat lortu duten argazkilariek hartu dezakete parte eta aurtun 210 lan aurkeztu dira guztira. De Cosek Zarautzeko Triatloian Getariako hondartzako irteeran ateratako "Estampida" argazkiarekin irabazi du aurtengo edizioa. Sorluzetarrak "sorpresaz" jaso du irabazle titulua baina "oso pozik eta ilusionatuta" dago, errekonozimendu handiko saria baita Argizaiola.

De Cos Argizaiola eskuan, aipamen berezia lortu duten argazkilariekin.





**DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako torniluak**

T. 943 75 17 36 / 18 03 Industrialdea 20 - 21
F. 943 75 22 95 50 Posta Kutxatila
20590 Sorluze

Kultur agenda

Bihar, zapatua

MUNDUMOB

"Eman hartu nahi dozun mundua"

12:30ean, Zubi Nagusian

Ant: Sorluzeko Zero Zabor

KONTZERTUAK

PAM eta Norman

22:30ean Gaztetxean

Ant: Sorluzeko Gazteria

Ekainaren 1etik 8ra

PINTURA ERAKUSKETA

"Kaleko Margo Lehiaketak 20 urte"

Sariturako lanen salmenta

Kiroldegiko erakustaretoan

Ant: Udaleko Kultura Batzordea

Ekainak 8, zapatua

KONTZERTUAK

Anger eta Humus

22:30ean, Gaztetxean

Ant: Sorluzeko Gazteria

Ekainak 21, barixakua

MUSIKA ESKOLAREN KONTZERTUA

19:00etan, Plaza Zaharrea

Ant: Sorluzeko Musika Eskola

Ekainak 22, zapatua

BIODANTZA SAIO IREKIA

17:30ean Kiroldegiko ganbaran

Ant: Sorluzeko Biodantza Taldea

Ekainak 23, domeka

UDATE GABA

21:00etatik aurrera, Plaza Barrixan

Ant: Pil-pilean Kultur Elkartea

Ekainak 27, eguena

HITZALDIA

"Zer gertatzen da 2 urterekin?"

Nerea Mendizabalen eskutik

17:30ean, Zinean

Ant: Sorluzeko Haurreskola

Ekainak 28, barixakua

NAZIOARTEKO EGUNA

Gay, Lesbiana eta Transexualen

Eskubideen Eguna

Ant: Sorluzeko Komite Arroxa

Zorion agurrak



June Eguren
Maiatzan 3an 10 urte bete dituduz!
Zorionak panpox eta muxu pila,
etxekuen partez!



Pedri Lete
Maiatzan 16an 60 urte!
Beste hainbeste horren ondo
bete deizuzela!



Eneko Alvarez
Maiatzak 11n 8 urte!!
Zorionak polittiori eta
muxu haundi-haundi bat!



Onintza Ibarzabal
Maiatzan 30ian 8 urte!
Etxeko printzesarentzat
Besarkada potolo bat!



Myriam Goenaga
Zorionak amatxo, muxu eta
besarkada haundi bat etxeko
marrajo kuadrilan partez!



Koldo Arantzeta
Ekainan 6xan 4 urte!
Zorionak K(z)aramelo
etxekuen partez!



Garazi Aizpurua
Ekainan 12xan 10 urte!
Zorionak jatorri eta muxu
potolo bat etxekuen partez!



Iñaki Diaz
Ekainan 6xan 59 urte!
Barrez barrez, urtiak aurrez!
Zorionak etxekuen partez!



Zorionak Enaitz!
Zure barrea, gure pozal!
Muxu haundi asko,
etxekuen partez!



Ioritz Reglero eta Ane Alberdi
Maiatzak 17xan eta 18xan 4 urte!!
Zorionak maittiak, milloi bat patxo
familixian partetik.



Begoña eta Nora
Maiatzan 24an urtiak betetzen dituduzelako,
Muxu haundi-haundi bat etxeko danon partetik!



Idoia eta Uxue
Zorionak bikote, zuen 12. urtebetetzean!
Hemendik aurrera formal ibili...Muxuak danon partetik!

Jaiotakoak eta hildakoak



Aitor Agirre Aizpitarte
Izane Peña Mira



Modesta Nuñez Fariñas
Agustino Gonzalez Gonzalez
Margarita Aranberri Laskurain
Maria Pilar Astigarraga Iglesias
Lazaro Lagoma Labari
Iker Salaberria Arizaga



M^a FELISA ALBERDI LARRAÑAGA
GASTEIZEN ZENDU ZEN 2013KO MAIATZAREN 1EAN

*"Zure begien berdea itzali egin da;
Elosu aldian baina, izar berri bat jaio da,
disdiratsu"
Beti gogoan, beti bihotzian*

Senideak



JULIANA GARAY ELORZA
2012KO MAIATZAREN 13AN

*"Gogorra izango da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko.
Baina bizi garan artean
ez zaitugu ez ahaztuko, bihotzez eta
sinesmenez ez zara hiltzen betiko"*

Etxekoak



Iturria: Maria Jesus Arrizabalaga

Tornulari gazteen bazkaria

Erretratu honek Kañoi fabrikan ikasitako gazteak eta Claudio, maisua, ditu protagonista. Sasoi hartan Armeria Eskolara joaterikez eta herriko nerabeek ofizioa fabrikan, bertatik bertara ikasten zuten. Gazte hauek, hain zuzen, tornulari aprendizak

ziren Cañonesen. Argazki hau Meltxorreneko taberna zenaren baskula gainean jasota dago; bazkari dotore umoretsuaren ostean aterata, orain dela 50 bat urte inguru.

Argazkian, ezkerretik eskumara, goian:

J. C. Azkona, J. M. Ansola, F. Agirre, S. Fernandez, L. M. Heriz, J. J. Artola eta J. L. Altube †.

Behian:

A. L. Mendia, J. C. Lamariano, C. Onaindia (maisua) †, Argate eta J. L. Lamariano.



IKER SALABERRIA ARIZAGA
MAIATZAREN 19AN ZENDU ZEN

*Negarraren ostean atsedena etorriko da.
Gure gogoan biziko zara beti.
Maite zaitugu Iker.*

Etxeokak



JACINTO GANTXEGI ARANZABAL
I. URTEURRENA
2012KO MAIATZAREN 13AN

*"Gure artean izan dugun maitasunari
eutsi eta ez etsi, orain aurkituko baitugu
amaituko ez den poztasuna
eta beti euki dozun alaitasun hori.
Ez adiorik, gero arte baizik
Gurekin egongo zara gaur eta beti"
Maite Zaitugu*

Etxeokak

100 urte etorkizuna sortzen



IEFPS-GLHBI
ArmeriaEskola^x

*Izenematea:
Maiatzaren 27tik ekainaren 7ra arte*

Isasi, 36 - 20600 Eibar - Tfno. 943 20 32 44
e-mail: eibar@armeriaeskola.com

- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- MANTENIMENDUA
- MEKATRONIKA
- ROBOTIKA
- ELEKTRIZITATEA
- ELEKTRONIKA
- AUTOMATISMOAK
- TELEKOMUNIKABIDEAK-
INFORMATIKA
- DISEINU INDUSTRIALA

www.armeriaeskola.com

Beti dago
lehen aldi bat
edo zertarako...

Honetarako, hartarako... badakizu.
Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai;
erosketa supermerkatua joan gabe egiteko,
adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online
estreinatzeko unea.
Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

10€

oparituko dizkizugu online egindako
lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik
gorako eskaerarako balio du.

eroski.es


zurekin

BIRZIKLAGARRIA NAIZ.

Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.

